



Hezitzaile ofizioaren xarmaz

Halakorik entzungo genuenik ere! Bada, antza, hainbat lanbide-tan gertatzen ari den antzera, irakaskuntzan ere irakasle falta

izan omen dezakegu. Ohartarazpe-
na Frantziako Estatuko Pap Ndiaye
Hezkuntza ministroak egin zuen ur-
te berriaren hasieran. Ndiayek esan-
dakoaren arabera, arazoa estruktu-
rala da, eta, bistan denez, datorren
ikasturtetik aurrera Parisek ezingo
ditu behar adina irakasle titular
kontratatu. Ikasturte hasieran ere
antzeman zen irakasle eskasia ho-
rrek, dirudienez, zenbait urtez
iraungo du. Beraz –eta oraingoz,
behintzat!–, ondorioak izango ditu
Lapurdiko, Nafarroa Behereko eta
Zuberoako eskoletan ere.

Ministroak egin zituen adierazpenen arabera, azken ikasturteetan «irakasle ofizioaren xarma jaisten ari da». Bere iritziz, eta irailean irakasle guztiei soldata igotzea aurreikusita duen arren, xarma galtzea ez dago soilik soldatarekin lotuta. Era berean, zerikusia du ibilbide profesionalaren garapenarekin, eta arazoa nazioartekoa da. Hortaz, nahiz eta jakin soldata igotzea ez dela nahikoa izango, igoera hori definitzen ari dira eta «zeregin berrieekin» lotuta egongo dela jakinarazi du. Zeregin horiek eskolaren eraldaketarako eta ikasleen arrakastarako baliagarriak izango omen dira. Zehazki, «ikasleen orientaziorako», «irakasleen etengabeko prestakuntzarako» eta beste irakasleen hutsuneak betetzeko «denbora laburrerako ordezkapenetarako» denbora luzeagoa eskaintzeagatik pizgarriak izango lirateke igoera horiek.

Aldaketa hotsak datozkigu men
dean gaituzten eta euskal herrietako

eskolak arautzen dituzten eta hezkuntza sistema ezartzen diguten bi estatuetatik: Espainiako Estatuko LOMLOE Hezkuntza Legea, batetik, eta Frantziako Estatuan datorkien arazo estrukturalari aurre egiteko neurriak, besteak beste, bestetik. Francesco Tonucci pentsalari, psikopedagogo eta marrazkilari italiarrak esandakoa datorkit burura: ez da erreforma onik behar, maisu-maisura onak baizik.

Hezkuntza ministro frantsesak irakasle lanaren xarma berpiztu nahi du, eta, bide batez, eskola aldatu ikasleen arrakasta erdiesteko irakasleei zeregin berriak esleitzen. Erronkari erantzuteko beharko duten denbora gehigarria aitortzeko prest omen dago; horretarako, diru-pizga-

rriekin sarituz. Asmoak ez dira txarrak. Ia nolakoak diren praktikak.

Ez dago gaizki hezkuntza ministro bat irakasle ofizioaren xarmaz kezkatzea. Interesgarria. Xarma edo xarma eza aipatuta, urgentea da eraiki nahi dugun Euskal Hezkuntza Sistema Nazional horri hein handian eutsiko dioten hezitzaileen –ez soilik irakasleen– profilaren inguruan gogoeta egitea: zer ezaugarri eta prestakuntza beharko dituzten zapalduta dagoen eta hezkuntza gutxitua duen herri honetako neska-mutilak pertsona libre eta zoriontsu gisa hezteko, alegia.

Tonuccik aspaldi esan zuen soilik irakasle onek salbatu ahal izango dutela eskola. Eta irakasle ona izatea haurren oinarritzko eskubidea da, ez zorte kontua! •

